

EUSKALDUNTASUNA GASTEIZEN ETA ARABAN

Ondo dakit lerro hauen bidez jakintza gaien zaleei ez die-dala ezer berririk esango, baina bai Araba eta honen hiriburu Gasteizi dagozkien zenbait gauza adierazgarri gogoratu.

Bidasoaz hemendikaldeko lau herrialdeetarik euskara guxien erabili eta landu duena Araba da ezbairik gabe. Bizkaiko mugan den Aramaio aldean bakarrik entzun daiteke. Beste tokietan zeharo galdu da. Hala ere oraindik urte asko ez dela, Gasteizko ate-atean mintzatzen zen. 1932. urtean, nik Gasteizen filosofia ikasten nuenean, arratsalde batez elkarrizketa luze-goxoa izan genuen urteetan aurrera zihoan gizon batekin. Artzaina zen; Gasteiztik hurbil dagoen Berrostegieta herritxoko semea. Eta zera esan zigun honek: etxean emazteak eta biak beti egin ohi zutela euskaraz, seme-alaba guztiek, ordea, erderaz.

Araba aldean euskara horrela galdu bada, haren lekukotasun ukaezina behintzat betiko geratu da Gasteizko toki eta auzoen izenetan. Hor daude aintzina-aintzinako euskal izenez BUSTINZURI, ARANA, TXAGORRITXU, etab.

Gasteiztik irten ala, beronen ateetan bertan euskal toponimia beino besterik ia aurkitu ere ez dugu egiten: BERROSTEGIETA, LASARTE, ELORRIAGA, OTAZU, IRUÑA, ZUMELZU, etab.

Inguru-minguruka ez ibiltzearren, Arabako herrixka bat

aipatuko dut: AZAZETA. Gasteiztik 19 kilometrora dago, bere izeneko mendatearen bestekaldean. Gaur egun 23 etxe edo ditu eta beste horrenbeste bizilagun. Hutsik eta bertan behera utzirik daude etxe batzuk eta gasteri gehiena Gasteizen bizi da.

Orain dela urte batzuk, Azazetako seme den Mariano Lacalle adiskidearekin egin nuen bidaian, ondorengo hau gertatu zitzaidan: Mendatearen gaina igarorik, Azazetarantz gindoazen eta metro batzuk aurrerago bihurgune bizi baten ondoren, nire lagunak esan zidan, zelai edo belardi bat senalatuz: toki honen izena POZOLANDA da.

Neure harridura adierazi nionean, ihardetsi zidan: Hemen ia iturri, mendi, erreka soro guztiek euskal izena dute. Nire jakin-mina asetzeko, egun gutxi barru, Azazetako euskal izenez beteriko orri bat eskuratu zidan: Alrrubieta, Arabasolo, Arti, Arbozu, Arrenburu, Azkarro, Azkurze, Ayago, Ayagogaña, Berrociatzulo, Bierkolar, Birigutxi, Kazarrietas, Kilikale, Kiliso, Kilisote, Kruzianoste, Cikilza, Thoste, Erma, Eskutari, Bustina, Itxarrate, Isasondo, Itxaleku, Itxogana, Itxurdario, Iturgaitzu, Iturritxo, Juaninurri, Lekutze, Lorri, Lete, Maniturri, Orduntaetas, Oyane, Pozolanda, Plumarana, Putaeta, Errekazarra, Respuro, Sakolanda, Sagarrea, Torralde, Tripnadi, Untxe, Urzatxe, Zabaleta, Zabakolanda.

Ezpairik gabe, Azazetako euskal izen asko zerrendatxo honetatik kanpo geratuko ziren. Zerrendatxo hau zirt-zart hantxe bertan osotu zuen amen esan orduko; bururatu ala, paperera pasatu, geroago zertarako erabiliko zen susmatu ere egin gabe. Igande arratsalderen batetan hara joanik, bertako zaharren ahoz zerrenda osoago bat egitekoan ere egon nintzen, baina ez dut harez gero abagadunerik izan.

Euskal toki-izenak oso esanguratsuak eta filosofi-barru handikoak izan ohi dira. *Jaungoikoa* hitzak, adibidez, goiko jauna esan nahi du, goian egoitza (bizilekua) duen jauna adieraziz.

Ibai bati beste berri bat elkartzen zaionean, ingurune har-

tan den baserriari *Ibaibarra*ga deritzo. «Ibai» izenez, «barri» adjetibo eta «-aga» atzikiz oñoturiko hitza. Beraz, hemen izenak berak adierazten digu baserri hori dagoen tokia nolakoa den. Beste horrenbeste gertatzen da hainbeste eta hainbeste toki-izenekin: toponimo hutsak izanik, gerora deitura bihurtzen dira: Ibaizabal, Arrieta, Maguregi, etab. etab.

II

Gasteizen moldiztegiak izan duen sorreraz ikerketa batzuk egiten ari nintzala, euskarari buruzko argibide jakingarri bat aurkitu dut.

Gasteizen moldiztegiari dagokionez, agiritan argi eta garbi dagoena zera da: 1722. urtera arte ez zela liburu bat ere inprimatu Araban.

Lehenengotan zalantzan eta harriturik geratu nintzen berandu eritzirik, Bizkaian, Gipuzkoan eta batez ere Nafarroan ordurako zaharra baitzen moldiztegia. Hauek dira gure herrialdeetan moldiztegiaren sorrerako urteak: Iruña da horretan lehenengoa 1490.ean, gero Lizarra (1546), Tuter (1572), Bilbo (1578), Donostia (1667).

Gasteizko lehenengo inprimatzailea Bartolome Riesgo Montero de Espinosa dugu.

Bartolome Riesgo Logroñotik etorri zen Gasteizara, han 1503.az gero bazen moldiztegia eta. Egotez Gasteizen zegoen bizitzen bere moldiztegi eta guzti.

Gasteizko udaletxeko agiritan ikus daitekenez, beharrezko zuen baimena ematen zaio 1722.eko martxoaren 13.an. Honela dio agiriak: «podía ser admitido en cualquiera de las vecindades de esta dha ciudad».

Urte bereko irailaren 5ean liburu-inprimatzaile izendatzen dute «impresor de libros y otras cosas concernientes a dicho ejercicio». Udalak, beraz, hiriko inprimatzailetzat ezagutzen du, horretarako agiria (tituloa) emanez eta baita moldiztegia eta li-

buru-denda jartzeko baimena ere. Liburu-dendan edozelako liburuak sal zitezken debekatuak izan ezik.

Hamabost urtetan egon zen Gasteizen inprimatzaile legez. 1737. urte inguruan bere suinari utzi zion eta beste berri bat jarri zuen Donostian, hil arte bertan bizi zelarik.

1722.aren hasieran argitaratu zuen bere lehenengo lana On Jose Jacinto de Alava Ahaldunaren aginduz: «QUADERNO-
/DE LEYES,/ Y ORDENANZAS,/CON QUE/SE GOVIER-
NA/ESTE/MUY/NOBLE/Y MUY/ LEAL PROVINCIA/
DE ALAVA/: Y DIFERENTES PRIVILEGIOS,/ Y CEDU-
LAS DE SU Magestad, QUE VAN PUESTOS/ EN EL
INDICE./ IMPRESSO/EN VITORIA: POR BARTHOLO-
ME RIESGO, IMPRESSOR DE/ LA CIUDAD. AÑO DE
1722»/.

Ez zen ugaria izan haren inprimatze-lana. Gasteizek ez zuen gehiagotarako ematen, dirudienez. Baina lehenengoetariko liburua euskaltzaleentzat benetan jakingarria da, bide batez, garai hartan hirian eta Araba osoan euskarak zuen zabalera erakutsirik.

On Bartolome Riesgok, 1731.ean, Arabako lehen euskal liburua argitaratu zuen. Dotrina-liburu bat: «DOCTRINA
CHRISTIANEEN EXPLICACIÑO A EUSKERA», Martin de Arzadun-ena eta 1891.ean Sorarrain-ek bitzi bakantzat jotzen zuena. Inprimategi-izena dakarren barrenean honela dio: «Urte 1731. Imprimidua Vitoriaco Ciudadean Bartholome Riesgo, de Monteroen imprentan».

Gasteizen argitaratzen zen lehenengoetariko liburua, euskal dotrina bat izatea adierazgarria, oso esanguratsua da. Hortik berez-berez atera daitezke ondorio batzuk. Esate baterako, 1731. urte inguruan eta aintzina-aintzinarik behar bada, euskarak Gasteizen eta Araban izan duen oihartzun handia, batez ere toki-izenek adierazten digutenez.

Higinio Gandarias